



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2022ko irailaren 16koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE OSOAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2022ko ekainaren 20ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle osoaren plaza betetzeko (2022ko uztailaren 6ko EHAA), eta amaituta onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko Errektoreari, eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2022ko irailaren 16koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C

FEDERICO RECART

(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por


30628936C FEDERICO

RECART (R: Q4818001B)

Fecha: 2022.09.16

08:16:59 +02'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: PLC8L1- D00115-1. Kategoria: Irakasle osoa. Jakintza arloa: Filosofia Morala. Saila: Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia. Ikastegia: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Filosofia Politikoa I» eta «Filosofia Politikoa II».

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: ESTEBAN ANCHUSTEGUI IGARTUA
NAN: ***5309**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez